

Goierri

273. zenbakia 2005eko urtarrilak 14

IGARTZAKO BURDINOLA ZAHARBERRITZEN



Water-poloa
Goierriin



Zuretzako astia
Tiempo para ti



www.antzizar.net

tel. 943 887900



publiack



BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



BERÓGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA

USABAL, 11-A
TOLOSA

Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:


SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA

Tel.: 943 653 307

IZKIÑA

Jatetxea

943 802 169 - 943 800 251 - SEGURA



Eguneroko menua
astelehenetik ostiralera

Ospakizunak

Menu bereziak

Karta



BERTSOTAN

Urtarrila



Iban Urdangarin

Udaberriko esperantzeta negu beltzaren bihotza mendi gailurren tapaki dira elurra eta izotza eguzki printzak atera nahian gau izartsuetan hotza opor ondoko hilabete hau ez dugu izaten motza.

Urte berria egun berriez zorionaren bezero ilbeltzak dena beltza duenik etzazuela espero urtariletik abendurarte hamabi senide edo baina guztiak dira politak gozaten jakinez gero.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, I

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak: Bittor Gorria, Garbiñe Garmendia eta Beasaingo Ikastolako haurtzaindegia.

Inprimaketa: Gertu

(Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: I 132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua:

37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Aitor Aranburu

7. Errezeta: Ahate magreta mahaspasekin

Aholkua: Dibortzio legearen erreforma proiektua

8. Elkarrizketa: Otatza sagardotegia

10. Elkarrizketa: Zeraindik Mutiloara errepide berria


14. Erreportajea: Igartzako burdinola zaharbertitzen

18. Elkarrizketa: Ñañarri water-polo taldea

24. Mundutarrak Goierriin: Intipuka

24. Debaldeko iragarkiak

26. Foto zaharra: Ordiziako neska rugbylariak



Goierritarra Goierriz kanpo jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro
Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aitor Aranburu

Dena baserritarrentzako, baina baserritarrik gabe

Despotismoa ez zen amaitu: gaur egungo klase politikoak ere bere egin ditu aginte forma haiek, eta bere egiteaz gain onartu beharra dago ederki garatu dituztela, parte-hartzea deuseztu eta Jaungoikoaren graziaz betirako aguantatu beharko ditugula sinistazaraino. Hainbat nekazaritza elkarte eta sindikatuko kideek itxialdia egin dute Donostian Santo Tomas egunaren bueltan, Gipuzkoako Foru Aldundiari elkarrizketa eta elkarleen autonomia errespetatzea eskatzeko.

Denok dakigu zein den nekazaritzaren eta baserritarren egoera, baina ez dakienarentzat hona hemen datu batzuk: Esne ekoizpenari dagokionez 15 urteetan ekoizpenaren %20a eta lanpostuen %85 galdu dira. Kontzentrazioa, intentsifikazioa, eta ondorioz, produktuaren nahiz ingurugiroaren kalitatearen galera nabarmena izan da. Iparlat geratu da, baina baserritarrik ez. Haragiari dagokionez ere, orain dela 30 urteko prezioetan aritu behar lanean, eta Europatik datozen diru-laguntza edo limosnari esker dirau haragi sektoreak. Jaten denaren %40 ekoizten da bertan, eta orain hiltegi txikiak itxi eta gure haragia, kalitate handikoa omen denez, estatuko merkatura bidali behar omen dugu. Ondorioa zera da, bertan jateko kalitate baxuko haragi gehiago ekarri beharko dugula estatuko gizendegi intentsiboetatik. Hori da herria eraikitzea. Artzaintza, barazkigintza, baratza eta frutagintza, basogintza... denetan dago nekea eta etsipen puntua arrazoi bategatik ez bada besteagatik.

Gipuzkoan, aktiboan 9.000 baserri egotetik 2.800 egotera igaro gara bi hamarkadetan. Goierrin, epe berean, 1.700 izatetik, 300 inguruk bizi irauten dugu. Eta abiadura honek bere horretan jarraitzen badu, 25 urteren buruan ez da ez nekazaritzarik eta ez baserritarrik egongo, ez

Goierrin eta ez Gipuzkoan. Baina badirudi arazo bakarra bokazio ezarena dela. Baina bokazioa egon badago: bai laminazioan aritzeko hainbestekoa behintzat. Baserrian geratzeko ordea errentagarritasunean baino gehiago pentsatu behar da bestelako zenbait arrazoi metafisikoetan. Kanean ordea, badirudi arazo hau baserritarrena bakarrik dela, eta ez daukala eraginik ez ingurumenean eta ez gizartearen bizi eredu eta bizi kalitatean.

Eta zer egiten dute gure agintariek? Agindu. Agindu eta ez egin. Sektoreko ordezkariekin hitz egin beharrean bakarrik praktikatzen dute, eta badirudi hausnar egitea behien kontua dela bakarrik uste dutela. Erreserbako indigenei buruz bezala hitz egiten dute gutaz ari direnean: beraiek dakite zer den guretzako hobereena, eta horrela ikusten ez badugu zigorra datorkigu. Horrelakoa da gaur egungo demokrazia.

Eta zer egiten du gizarteak? Kontsumitu. Bizitzeko kontsumitu beharrean kontsumitzeko bizi. Hortik aurrera, norberaren zuzeneko arazoa ez bada telebistaren arazoa da. Itxura eta kontsumo gaitasunaren arabera neurtzen da bata bestea. Gabonetako oparietan, jaki exotikoetan, arropa eta oporraldietan diru asko gastatzen da baino eguneroko jana erosterakoa urte osoan merkealdiak izango balira bezala. Oneindaizuela.

Eta zer egiten dugu baserritarrok? Bizi iraun. Gaur egun ez dakit nor ausartuko litzakeen baserritarra definitzen. Gipuzkoako lurrazalaren %62 basoa, beste %22 belardi, eta baserritarrak %1 baino gutxi gehiago: biztanleriaren gutxiengoak, bakardadean aurre egiten dio gure ondarea den hori gestionatzeari. Askok eta merke egin behar omen dugu, eta horrela zaila da gauzak ondo egitea. Kultura, paisaia, ingurugiroa, elikagaiak...ez dira baserritarren arazoak bakarrik.

Gipuzkoan,
aktiboan 9.000
baserri
egotetik 2.800
egotera igaro
gara bi
hamarkadetan.
Goierrin, epe
berean, 1.700
izatetik, 300
inguruk bizi
irauten dugu.

LADA
Ssang YongARANDIA
Garaia

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Niretzako... egur ikatza, mesedez

Olentzerorenak eta erregeenak pasa berri diren honetan, betiko leloa errepikatu da, alegia, denek ekidin duten oparia ikatzarena izan da, batik bat egur ikatzarena, Olentzerok bere eguneroko lanetik izerdituz lorturiko benetako fruituarena, gure arbasoak bizi al zitezkeen ahalbidetu zuen erregai miresgarriarena. Zer du txarra ikatz mota honek?, ba al dugu gai honek eskain diezagukeen onuren eta auken berri?

Egun, bizi ohituren aldaketa bitarte, haurren opariak, plastikozko jostailuetan oinarritzen dira, made in Taiwan jartzen duten horietakoa, seriean erraz milaka jostailu berdin-berdinak egiten diren eta telebistako marrazki bizidunetan inspiratuak izaten diren horietakoa dira, petroleotik eratortzen diren gaiekin landua, merkea, apurtu erreza, nekez konpontzen dena, erraz beste bat erosiz ordezkatzeko dena, birziklatzen ez dena...hori bai eskatzen diegula Olentzero eta erregeei, nahi gabe ere kostaldera iritsi zaigun txapapote antzekoa, milioika tona etxetearaino.

Eta okerrera, bizi ohitura aldaketa hauetatik ondorioztatzen diren "giza baloreak" dira. Esate baterako opari baten atzetik dagoen mezuarena "bonito, barato de inmediato", edukiz hutsa den imajin itxurosoa.

Horren isladatzat har daiteke egun etxebizitzetan ditugun sukalde moderno eta praktikoa. Zenbat aldiz kantatu izan dugu "epel epel sukalde giroan, aitararen ta amaren ondoan...", eta



zenbatetan galdetu diogure buruari giro hartaz?, nora joan ote dira?, non biziitzen da horrelakorik?. Garai bateko Eguberri kanta zaharrak berriro erreferentzi bilakatzen dira, eta egun dugun bizi kalitate zoriontsuaz galdetzera datoz... Etxeko giro epela, (sukaldeko beroa) ez zen gasoilarekin lortzen, ez eta gasa edo elektrizitatearekin... sukaldeko azpiko sua, ekonomika zeritzan burdinazko txaparengatik ordezkatu zen, benga egur ikatza, benga goxotasuna eta sukaldearen atsegina... bertan jan, bertan solas harremana, bertan otoitz lekua. Egur ikatzak duen usainaren arri moan ematen ziren denak, eguzki eta lurrak egur moduan urteen poderioz gorderiko energia, bertan astiro-astiro kontsumituz eta gozatuz, oparirik ederrena, oharkabe etortzen, ematen, zitzaguna.

Tamalez, zenbait gai gaintzitzeke dugularik, beroaren bueltako kultura nabarmen ari zaigu aldatzen. Egun sukaldea ez da tokirik beroena, gasak direla medio bertan arnas tokiak (gutxienez bi puntutan) jartzen zaizkie eraikitzeke garaian, ekonomiak eta hauek eskain dezaketen beroa etxe

guztira barreiatu dadin nekez erabiltzen da, mikrouhin gailuak bazterra zaratatzen beteaz "berotzen du janaria", eta suaren txinparta hotsik ez dagoen sualdea leku hotza suertatzen da.

Ez dakit egun pairatzen edo ematen diren aldaketa hauek borondatezkoak, eta kontzienteki eginak diren, nork markatu ote zituen/dituzte urrats hauek?, zein motibazioarekin?

Kanpora begira berriz, basoari so, egun nekez lortu daiteke etekinik, eta baso lurrak lana ematen duten gune besterik ez dira jabeentzako. Denborarekin, bertako zainketei utzi eta toki itxi, ilun, pasagaitz batean bilakatzen den sastrakadian bihurtzen da. Guztion gozamenerako izan zitezkeenak gutxitzen doaz, ez aisialdirako, ez perretxikuarako, ez egurretarako... garai batean basoaren etekin ekonomikoak bai egur ikatza, bai egurra orokorrean zeharkako beste jarduerak horiek ahalbidetzen zituen, gizarteak egurrarekiko eskaera bat izateak ahalbidetzen zuen. Baina horiek kontu zarrak dirudite. Egun plastikoa ematen da txo!

Manex Aranburu

JAKIN BEHARREKOA

Itzalaldiaren alde argia:

2003ko abuztuaren 14an, 50 miloi biztanle 30 orduz argirik gabe utzi zituen itzalaldi batek AEBetan eta Kanadan. Abuztuaren 15ean behe-atmosfera bildutako datuak argitaratu dituzte orain ikertzaileek eta horien arabera airearen poluzioa uste baino askoz gehiago jaitsi zen: ozono kontzentrazioa erdira jaitsi zen, sulfuro dioxidoa % 90 gutxitu zen, eta Pennsylvania gainean ohikoa den lainoa desagertu egin zen. Beraz, egunez argitasuna areagotu egin zen.

Berotegi-efektuko gasak zerbait gutxitu dira Europan.

Europako Ingurumen Agentziak argitaratutako azken datuen arabera, 2002an lehen baino berotegi-efektuko gas gutxiago isuri zuten Europako herrialde industrializatuek. Aurreko urteetan gorantz egin zuten isuriek, baina 2001-2002 epean % 0'5 jaitsi zen gas horien emisioa. Eguraldi beroaren ondorioz etxebizitza eta bulegoen berokuntzarako erregai fosilak gutxiago erabiltzea, hazkunde ekonomiko motelagoa, ikatzaren ordezkari gas naturala erabiltzea eta negutegi efektua eragiten duten gasen emisioak gutxitzeko hartutako neurriak dira, jaitsiera horren arrazoiak. Nolanahi ere, Europa urruti dago oraindik Kyotoko protokoloak agindutako helburuetatik. Are urrutiago dago Espainia eta horren barne Euskadi, Espainiak % 15 gas gehiago isurtzeko baimenduta bazegoen, % 33a isuri du eta Euskadik % 28a.



Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. **Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundera.**
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.

9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundera (II)

GOIERRITARRAKO aurreko alean Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkunderari buruz idatzi genuenean, ekonomi arloa zuzendu genuen arazo hau.

Baina gai honetaz hitz egiten dugunean ezin ditugu ahaztu ondorengo arazo

hauek: arrazakeria, emakume eta gazteen lan prekarietatea, gutxiago garatutako herrialdeen egoera, etorkinen egoera,...

Honela, datu gehiago emango ditugu gai honi buruz, erreflexio gisa balio dezan.



Ba al dakizu...?

✓ Mundu mailan 1.500 pertsona dolar bat edo gutxiagorekin bizi da eta gehiengo emakumeak dira.

✓ Emakumeek batz beste, lan berdina egiteagatik, gizonenak baino %50 gutxiago irabazten dute.

✓ Gutxiago garatutako herrialde batean bizi den pertsona batek bizi esperantza 43 urtetakoa dauka. Aldiz, garatuagoak dauden herrialdeetan esperantza hau 78 urtetakoa da.

✓ FOESSA Fundazioaren arabera, 1995. urtean aterpetxetan hartzen zen jendea gizonenak ziren 40

urte ingurukoak eta alko-holikoak, gaur egun berri, emakumeak, gazteak eta etorkinak dira.

✓ 1980. urtean aldi baterako kontratuak %5 ziren, gaur %40aren inguruan dabilta.

✓ 2002ko ekainean, Estatu Espainiarrean 1.448.671 etorkin zeuden, hau da, biztanleriaren %3,2a. Hauetatik %45a emakumezkoak ziren. 1992. urtean, aldiz, 393.100 etorkin zeuden eta 2010erako 4.000.000 eta 5.500.000 arteko balio bat espero da, hau da, biztanleriaren %9 eta %12ren artean egongo da.

✓ "Zabor kontratuak" milioi erdi dira, kontratu mota honekin langabezia kobratzeko eskubiderik ez daukate. Hauek behin-betiko kontratuak dituztenek baino %55 gutxiago kobratzen dute.

✓ 2003ko UNICEF Nazio Batuetako Haurrentzako Funtsak urteko txostenean datu hauek azaltzen ditu:

✗ 270 milioi haurrek ez dute osasun zerbitzurik.

✗ 140 milioi haur (gehienak neskatoak) ez dira inoiz eskolara joan.

✗ 180 milioi ume lanean daude.

GUKlan
BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

SUKALDEAN



Junkal Elorza
Aramako taberna
Arama

Ahate magreta mahaspasekin

Osagaiak:

- Ahate magreta
- 50 gr. mahaspasa
- Ardo moskatela
- Txanpinoiak
- Maizena loditzailea
- Haragi salda
- Soja salda
- Gatza

Lehenengo, magreta alde gorritik zentimetro bateko xerratan ebaki, alde zuria ebaki gabe.

Zartagin bero batean, oliorik gabe, alde zuritik su txikian egiten jarri. 10 bat minutu pasatakoan buelta eman eta beste aldetik egin, gehiegi erre gabe.

Plater batera atera, soja

eta gatza gehitu eta estali ez hozteko.

Magretak zartaginean utzitako koipe pixka bat kendu eta sutan jarri. Moskatela, mahaspasak eta txanpinoiak gehitu. 3 minutu inguru pasatakoan maizena loditzailearekin saltza loditu eta magretarekin batera mahairatu.

Dibortzio Legearen erreforma proiektua

AHOLKUA

2004ko azaroaren 26an, Ministro Kontseiluak banantze lege erreforma proiektua onartu zuen. Proiektu hau ondorengo puntuetan laburbiltzen da:

1. Orain arte lehenik banantzea eskatu behar zen eta denbora jakin bat pasa ondoren dibortzioa eskatzitekeen. Orain berriz zuzenean eskatu daiteke dibortzioa.

Dibortzioa eta separazioa bi aukera desberdin dira eta biek ezaugarri bakarra dute amankomunean: ezkontza ondoren hiru hilabete paseak egotea. Hori dela eta, pertsona bat banandu daiteke dibortziora iritsi gabe.

2. Orain arteko banantze eta dibortzio kausak alde batera uzten dira: familia abandonatzea, alkoholismoa, fideltasun eza... Lege berriarekin ulertzen da ezkontza hausteko ez dela aurretiko banantze eskaerarik behar eta are gutxiago ezkontuta ez jarraitzea baieztatzen duen arrazoirik. Nahikoa arrazoi da, banantze edo-

ta dibortzio eskaeran bertan isladatzen den bezala, norberaren borondatez harreman horrekin aurrera jarraitu nahi ez izatea.

Arrazoiak argudiatzea beharrezkoa ez izan arren, azaldu egin daitezke, epaileak ezkonkideen egoera kontutan izanik egoitzaren erabilera, zaintzaren esleipena, bisitak, pentsioak... inguruan neurriak ezartzeko.

3. Adingabeko seme-alaben zaintza aitaren eta amaren artean partekatua izateko aukera ezartzen da. Hau ez da betebeharrak, aukera bat baizik, beti ere ezkontideen akordioz onartua, nahiz eta seme-alaben onurarako epaileak berak ere ezarri dezaken.

4. Mantenu errenta (banantzearen ondorioz, bere diru sarrerak gutxitzen direla eta ezkontide bati sortzen zaion desoreka ordaintzeko ematen den errenta) hilartekoa, denbora batekoa edo kopuru zehatz batekoa (sarre-

ren ehuneko bat denbora zehatz batean, ondorearen ehuneko bat, edota kopuru orokor bat ordainaldi bakarrean jasoa) izan daitekeela aurreikusten da.

Aldaketa hauen ondorioz, espero diren abantailak honakoak dira:

✓ **Kostu ekonomiko txikiagoa:** alde aurretiko banantzea beharrezkoa ez izanik gastuak bikoiztea ekidingo litzateke.

✓ **Azkarragoa:** dibortzio eskaera ezkontu eta hiru hilabeteetara egin liteke eta aurretiko banantzerik gabe. Beraz prozedura gutxiago espero dira eta ondorioz hauen konponbidean azkartasun handiagoa epaitegien aldetik.

✓ **Tentsio gutxiago:** krisi egoera azkarrago konpontzen da, familia eta batez ere seme-alabak egoera hobean utziaz.

Zer gertatzen da martxan dauden prozesuekin? Araua aplikagarria izango da martxan dauden auzi guztietarako.



Monika Larrañaga
Gertu aholkularitza

Prozedura hauek, juizio zibil azkarretan lekua izan dezaketela pentsatzen da. Horretarako, proba pilotu gisa, martxan jarriko dira datozen hilabeteotan Estatuko hainbat hiri handitan.

Lege proiektu hau, 2005. urtearen lehen erdirako indarrean jartzea espero da. Dagoeneko aurkariak izan arren, praktikak erakutsiko du gaur egungo arautzeak baino emaitza hobekien ala okerragoak ematen dituen familia gatazken konponbidean.

Hasi da sagardotegi denboraldia

Sagardo denboraldian bete-betean sartuta gaude, Goierriko sagardotegietan txotx hitza da nagusi. Urruti-rago joan gabe, Goierriin aukeran, hainbat eta hainbat sagardotegi ditugu bertan. Sagardotegi batzuek, beraiek egiten dute sagardoa; beste batzuk, kanpotik, eginda ekartzen dute. Aurtengo sagardoaz eta denboraldiaz hitz egiteko, Zeraingo Otatza sagardotegiko Joxe Antonio Iparragirrerengana jo dugu.



Nolako sagardoa dugu aurten?

Itxura ona dauka. Iaz baino gozo gutxiago dauka aurten. Iazko sagarrak azukre gehiago zuen. Aurtengo sagardoa lehorragoa da, zertxobait garratzagoa. Iazko sagardoa, azken urteetan izan den gozoena izan da. Aurten lehenago ari da sagardoa lehortzen. Botilatzen lehenago hasita gaude.

Zer moduzko sagar urtea izan da?

Sagar asko izan da aurten. Agian, gehiegi, Beterri aldeko sagarra edo Asturias eta Galiziakoa hartu izan bagenu agian hobe izango zen. Nahasteko Frantziatik, Normandiatik, ekarri dugu pixka bat.

Noiz egindako sagardoa izaten da onena?

Santu Guztien inguruan egindakoa. Hemen, irailera alderako sagarra bildu nahi izaten dute baina orduan egindako sagardoa ez da hain ona ateratzen. Beraz, beste sagar mota batzuk landatu beharko litrateke. Hemen, goiz-sagar asko baitago.

Zenbat litro sagardo egin duzue aurten?

Aurten produkzioa zertxobait igo egin dugu, 100.000 litroa gerturatu gara.

Zein garaietan botilatzen duzue sagardoa?

Orain aldatuta dago sagardoaren tradizioa. Lehen garai batean, martxoko ilbeheran botilatzen zen beti, sagardoak ondo iraute-

ko. Orain ere, tradizio hori ere badago baina arazo bat izaten da: sagardoa martxoan botilatuz gero, hondarra edo posoa ateratzen zaio eta jendeak ez du horrelakorik nahi. Orduan, sagardoa lehenago sartzen hasita gaude, indarra hori hartzen ari da. Sagardo berria nahi du jendeak, sagardo biguina, motelagoa. Orduan, gaur egun, urte guztian sagardoa botilatzen dugu.

Merkaturatzeko arazorik ba al duzue?

Sagardo gehiegi egiten da hemen eta kanpotik ere ekarri egiten da. Jendea ari da ohitzen, sagardoaren mundua ari da aurrera egiten. Baina oraindik lan asko dago egiteko. Nafarroa

aldera ari da sagardoa zabaltzen, Madril eta Bartzelona aldera ere bai baina lan asko egin beharra dago. Sagardotegi txikiok ez daukagu horretarako indarrik. Elkarte indartsu bat beharko litzateke horretarako. Ingurune motzeko edaria da eta Europa aldera ateratzea ona litzateke. Iparralde aldera ateratzen hasita dago, dezent gainera, eta nik uste dut hor lan egin behar dugula, hemen merkatua nahikoa beteta dago eta.

Jendeak gero eta sagardo gehiago edaten al du botilatik?

Nik uste baietz, batez ere, gazteek. Ardoa berriz prezioak jaisten ari da eta hor edukiko dugu arazoa, ar-

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr.

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.

BEASAIN

R.P.S. 213/97

KEMEN

KIROLAK

Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

doak beste izen dauka eta. Baina nik uste sagardoa gora doala. Arazoa da, kalitateko sagardoa egitea, denen gustuko sagardoa egitea.

Sagardotegi guztiok edukitzen ditugu gora-beherak. Beti ez da sagardo ona ateratzen. Zulo horretan jendea atzeratu egiten da eta sagardotegiari kalte handia eragiten dio. Kalitatezko sagardo berdintsua egitea lortuko bagenu, nik uste gehiago salduko litza-tekeela. Hori da zaila. Ardoan lortu dute hori. Gaur egun ez dago ardo txarrik. Sagardoarekin oraindik, botila bat ireki eta zer moduzkoa ote den zain egoten gara.

Sagardo ona egitea erraza al da?

Kalitatearekin daukagu arazoa. Ardo okertxeagoa edo hobexeagoa aterata, beste batekin nahastuta ez da ezer gertatzen. Baina sagardoa, behin fermentatutakoan, beste batekin nahasteak ez dauka erremediorik.

Inbertsiorik egin al duzue aurten sagardotegian?

Bodega egiten ari gara sagardoa botiltzeko sagardoa gordetzeko kupelekin. Kupela zenbat eta gehiago ireki, sagardoari kalte handia egiten zaio. Asturiarrek beti hori esan izan digute: nola edukiko dugun botilako sagardo ona, kupelak hainbeste aldiz irekita.

Arrazoa daukate. Sanidade aldetik ere gero eta existentzia handiagoak dauzkagu.

Zergatik dauka hainbeste arrakasta sagardotegiak?


Leku ezberdinetako jendea, kupelaren bueltan, lagun egiten da. Jatetxeetan oso zaila da harreman hori sortzea baina sagardotegian erraza da harremanak egitea. Kanpoko jendea harrituta gelditzen da, behin sarrera ordainduta, nahi adina sagardo edan litekeela ikusita.

Jendeak ikasi al du sagardoa edaten?

Goierrin horrekin daukagu arazoa. Jendeak sagardo asko botatzen du. Sagardo asko alperrik galtzen da. Askotan jendea ezin zaio ezer esan eta norberak sufritu egin behar. Jendeak ikasi ere ikasi du. Sagardotegia ireki genuenean, jendeak, basoa txirian jartzen zuen.

Txotx denboraldia bera edo aurretik egin beharreko lana nahiago izaten duzue?

Jendea agoantatzen ere nahikoa lana izaten da. Pazientzia handia behar da. Baina aurretik lan asko izaten da. Sagardoa egiteko garaia oso estresagarria da. Txotx garaiak daukan ona da, esku artean dirua ikusten dela. Txotx garaiak eusten dio sagardotegiari bizirik. Sagardotegietan diru asko ari da sartzen.



Arg.: Arkaitz Apalategi

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



**OKINDEGIA
GARIONA**

K. Nagusia 35 BEASAIN


☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. 2da 477 883 144/01




TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

*Iñaki Berasategi
eta Iñaki Ugalde bi
herrietako alkateak:*



“Zerain eta Mutiloko kalea izango da errepide berria”

Ia 25 urteko eskakizunen ondoren, 2005ean hasiko dira Zerain eta Mutiloa bitarteko errepidea egiten. Urte bukarrerako amaituta egotea espero da. Iñaki Berasategi Zeraingo alkatea eta Iñaki Ugalde Mutiloko alkatea pozik azaldu dira, az-

kenean, etengabeko borrokaren ondorioz, helburua lortu dutelako. “Bi herrien etorkizuna lantzeko aukera paregabea emango du. Era berean, bi herriok hurbi-lago sentitu eta biziko gara hemendik aurrera”, diote bi alkateek.




OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



Proiektua

Errepide berriak 1,3 kilometroko luzera izango du. Apirilean hasiko dira lanak eta 8 hilabetetan bukatzea aurrirakusten da. Aurrekontua milioi bat euro pasatxokoa du.

Errepidea Mutiloa behekaldean GI-3571 errepidean hasten da eta Zerain erreka-eremuaren paraleloan gora egiten du. U itxurako bihurgune baten ondoren Olarte baserria ezkerretara utzi eta Irukarate baserri-eremura inguratzen da, Irukarate eta Arkane baserriak igaro eta metro gutxira Zeraindik gertu dagoen etxegune bateko errepidera iristen da. Zati horretan errepidea lehenetik dagoen bideari egokitzen zaio ahal den neurrian. Azkenik Legazpira doan GI-3520 errepidearekin elkar-

tzen da biribilgune batean; bertan Segurara, Legazpira, Zerain eta Mutiloarako errepideak elkartuko dira.

Trazatua gorantzakoa da, lehenengo zatian %8rainoko aldapak ditu, baina Zeraingo etxegunetik aurrera lauagoa da. Lehenengo kilometroan 77 metroko desnibela gainditu beharko du errepideak. 1.343 metroko luzera guztian 2,25 metroko bi errete eta 0,50 metroko beste bi bazterbide izango ditu. Gutxi gora behera 24.500 m³-ko indusketa lana egingo da eta bertako materialarekin 19.000 m³-ko betelana.

Zenbait unetan zuhaitz hostozabalak jarriko dira: lizarrak, haritzak, urkiak eta intxaurreondoak. Indusketa eta betelaneko ezpondetan hidroreintzak egingo dira.

Aurretik beste proiektu ere egin izan dira baina ez dira aurrera atera. Hirugarrenean, azkenean, bai. Orain artekoak zergatik ez dira onartu eta oraingoa bai?

Zerain: Zaila delako Diputazioa horrelako proiektu baten kargu egitea. Saihasbide bezala erabiltzeko ez du zerbitzurik, eta orduan Diputazioaren errepide planetan sartzea nahikoa zaila da. Beste aldetik, bi herriek daukaten diruarekin egitea ere ezinezkoa da. Horregatik kosta da hainbeste aurrera ateratzea.

Lurren gestioa ere hor egoten da beti zintzilik eta Udalen esku utzita zailagoa izaten da aurrera ateratzea. Hirugarrenean, proiektua, lurren gestioa eta obra bera Diputazioak berak bere gain hartu ditu eta posible izan da aurrera ateratzea.

Gutxienez, 1979tik eskatzen ari garen bidea da baina Zerainen meatzak martxan zeudenean, alemaniarrek zeudela, Bigarren Mundu Gerraren aurretik ere alemaniarrek esaten omen zuten bi herrien arteko bidea ona izango litzatekeela. Artean, Zeraindik meatzetara gudi bidea bakarrik zegoen.

Zergatik ikusi izan duzue errepidearen beharra?

Mutiloa: Elkarren ondoan dauden bi herri txiki garelako, eta amankomunean gauza batzuk baditugulako. Mediku zerbitzua, Idazkaria, Gizarte Laguntzailea, eskolaren autobus zerbitzua, autobus zerbitzua... eta aurrera begira ere gauza asko egin daitezkeelako. Mutiloari errazago izango zaio Zerainekin hainbat gauza aurrera ateratzea, Segura bate-

KORO FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA
Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

Beharrak berdinak dauzkagu eta batentzako ona dena bestearentzako ona da”

kin baino, amankomunean ezaugarri gehiago ditugulako.

Zerain: Komenigarria litza-teke Zerainek urtean mugitzen dituen 22.000-25.000 bisitari Mutiloara ere bideratzea, eta alderantziz. Mutiloak horiek aprobetxatu egin beharko lituzke. Horretarako gertutasuna beharrezkoa du. Elkarlana geroz eta estuago izango da, hain gertu egonda eta baldintza berdineko herriak izanda. Lan asko egin behar da herri batek herri izaten jarraitzeko. Konturatu gabe gelditzen dira herri txikiak ondorengorik gabe, eta guretzat, zeraingar bezala, oso garrantzitsua izan da bide hau egitea.

Proiektuaren aurkezpenen, errepide honek aberastasuna ekarriko duela aipatu zen behin eta berriz. Zein zentzutan?

Zerain: Bide hori, bi herriak etxebizitzak egiten ari diren guneetatik pasatzen da, gerora begira, urbanizagarriak izango diren lurrak izango dira. Bide bat edukitzeak, azpiegitura aldetik bere onura dakar.

Mutiloa: Garbi dago, errepide berria kale bat izango dela, kale handi bat, bi kasuak artean 1,3 kilometroko tartea besterik ez baita



“Historikoki gurdibidea beti egon da eta beti izan da zeraingarrentzat beharrezkoa. Orain dela 20 urtera arte, Zeraingo eta Mutiloko medikua Mutiloan egon da. Zeraingarrok oinez etortzen ginen medikuarengana”.

“Bi herriok hurbilago sentitu eta biziko gara”

Goierriko bi herriok elkarrengandik oso bertan daude eta era berean oso urrun. Baten kaskotik bestearenera kilometro eskas bat baldin badago, errepidez batetik bestera joateko Seguraino joan eta errepide nagusitik buelta eman beste aukerarik ez dago. Hogeitaz baina gehiago badira lehen aldiz bi herri hauetako udalek errepide honen beharra Gipuzkoako Foru Aldundiari luzatu ziotela. Harrezkero proiektu bat baino gehiago egin dira baina abenduaren 10ean aurkeztu zenaren mailaraino eraman gabe.

Errepide premia

Mutiloak 158 biztanle ditu eta Zerainek 254. Bi herriok antzeko historia dute: garai batean nekazaritzara,

artzantzara batik bat, lotutako herriak meatzeen ustiarakuntza izan dute osagarri, gero, urtetan, XX. mendean, aldiz, bai nekazaritzaren eta baita meatzaritzarena gainbeherakada dela eta, bi herriok hustutzen joan dira.

Azken urte hauetan bi herriok biziberritzeko ahallegin handia burutzen ari dira: herritarrentzako zerbitzuak zabaltzea, dinamika soziala eta kulturala areagotzea eta etorkizun ekonomikoa lantzea. Zeraingo eta Mutiloako alkateek diotenez, “hau dela eta, tanke-rako arazoak dituzten bi herriok elkarrengandik hurbil izateak aukera hobekak eskaintzen ditu: zerbitzuak elkarrekin lantzea, etorkizuneko bideak eratzeak aukera hobekak, eta

abar. Gaur egun herriotako biztanleak bertan bizitzen jarraitzea nahi badugu, nahi eta nahiezkoa da ahal diren zerbitzu gehien eta onenak eskaintzea: haurtzaindegia, eskola, gaurraioa, osasuna, eskolaz kanpoko hezkuntza, liburutegia, ludoteka, ordenagailu gelak, kultur eskaintza.... Honez gain, tokian tokiko izaerarekin uztartutako tamainako ekonomia lantzea garrantzitsua da”.

Honetarako errepide berriak ikaragarriko garrantzia duela diote bi udal-letako alkateek Mutiloa eta Zeraingo herrirentzako. “Gure etorkizuna elkarrekin lantzeko aukera paregabea emango du. Era berean bi herriok hurbilago sentitu eta biziko gara hemendik aurrera”.

go. Mutiloko plazatik Zeraingo baserriak ikusten dira.

Herritarrek zer moduz

hartu dute albistea?

Zerain: Azkeneko hauteskunde aurretik egindako bileretan, herritarrek, bide

hori eskatu eta borroka egin behar zela esaten zuten. Ehuneko ehunetan, herritar guztiak ez dira konforme

egongo. Errepidea etxe ondotik pasatzen zaionak bizitza kalitatea galtzen dutela esango du... baina, gehiengo handi-handi bat, %90-95, bidearen alde dago.

Mutiloa: Mutiloan ere jendea oso ados dago. Ikusi duguna da, jendeak ez zuela espero proiektua aurrera aterako zenik, aurretik ere proiektu gehiago egin bai baina aurrera atera ez direlako. Jendeak oraingoan ere hotsa bakarrik izango zela uste zuen. Baina azkenean ikusi dute gauza aurrera dola eta egingo dela.

Proiektua bera zer moduzkoa iruditzen zaizue?

Zerain: Gunerik aldapatsuenak, %8ko desnibela izango du. Aldapa derrigorean eduki behar du, Zeraindik Mutilora 75 metroko desnibela dagoelako. Baina uste dugu proiektua oso ona dela. Leku gehiengan,



Zeraingo aldean lehengo bide zati bat berrituko dute. Errepide osoa paseoleku ona izango da, oinezkoentzako ere egokitua egongo baita.

Uste dugu proiektua oso ona dela. Leku gehiengan, lehengo bide zaharra aprobeztatu da. Bi zelai harrapatzen ditu, baina nonbaitetik egin beharra dago

lehengo bide zaharra aprobeztatu da. Bi zelai harrapatzen ditu, baina nonbaitetik egin beharra dago.

Mutiloa: Nik orain ezagutu ditut aurreko beste bi proiektuak eta besteen aldean proiektu egokiena iruditzen zait aurrera atera dena.

Zerain: Zerainen lehenengo 300 metroak, lehengo bidetik egingo dira. Zabaldu egingo da. Aurrerago bi zelaian pasatzen zen. Etxe tarte batean pasatzeko aukera ere aztertu zen baina teknikoek ez zuten egoki ikusten, luzera begirako

errepidea delako. Guk geuk, ez dugu gehiegi baldintzatu errepidea nondik nora joatea. Gure baldintza horixe zen: Zerain eta Mutiloa lotzea eta Olarte baserriatik (landetxea da), errepidea pasatzea, Zerainako biderik ez baitu. Mutilotik dauka bidea, baina oso txarra, oso aldapatsua.

Mutiloan irteera aurretik egingo dago. Baina Zerainen errotonda bat egingo da.

Zerain: Legazpiko bidea, plazako bidea, hilerriako bidea eta orain Mutilorako bideak bat egingo duten le-



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Karnet mota
guztia

Aita Urdaneta
ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



*Teilatua jartzeko lanak
berehala hasiko dira
eta udan
amaitu*

Igartzako burdinola zaharberritu behar dute

Beasaingo Igartzako burdinola lehenagokoa bada ere, gaur egunera iritsi den egitura 1782an egin zen eraberritzearen ondorioa da. Indar lantegia bota zutenean agertu zen burdinola zaharra eta 2003ko apirilean, Aranzadik eta Beasaingo Udalak aurkikuntzaren berri


eman zuten. Hainbat indusketa eta txukuntze lan egin ondoren estaltzea guztiz beharrezkoa ikusten da zutik dagoen egitura mantendu ahal izateko. Hainbat eztabaidaren ondoren, garai batean zuen itxura adostu dute eta Alberto Zulueta arkitektoak gauzatu du zaharberritze proiektua.



SASIETA
MANKOMUNITATEA



www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea • BEASAIN • Tel.: 943 16 15 55



Iñauti
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
RUE ZAHAR KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
943 88 46 28

Beasaingo Udalak abenduaren 23ko Gobernu Batzordean onartu zuen Igartzako burdinola zaharberritzeko proiektua. Proiektu hau Igartzako monumentu gunearen berreskuratze lan zabalagoen barruan kokatzen da.

Burdinola 2002. urtean

Indar lantegia bota zutenean azaldu zen. Orduan egin ziren indusketa arkeologikoetan lur eta zabor tonen azpian, orain zaharberritze-koak diren burdinolaren hondakinak azaldu ziren.

Aurkitu ziren hondakin arkitektonikoen garrantzia zela eta inguruko hirigintza

plangintzaren moldaketa eskatu zuen. Burdinolaren aldaparoa oso osorik dago, hau azpiegitura hidraulikoaren zatia da. Tailerra harlanduzko ateburuekin zutik dago, baita bertatik sarrera zuen ikaztegiaren zati bat ere. Tailerrean hauspoaren, ingudearen eta mailuaren

lekuak garbi ikus daitezke.

Lehen arkeologia eskualtzearen ondoren, burdinola estaltzearen premiaz jabetu ziren, erabat hondatu ez zedin. Estaltzeaz gain, burdinola Igartzako kultur eskaintzaren barruan integratu beharra zegoen, horretarako Igartzako Batzorde-

historia gogoratuz




Erdi Aroaz geroztik Igartza inguruan burdinola izan dela jakin izan da. Horren lekuko 2003. urtean errota inguruetan egiten ari ziren indusketetan XV. mendeko burdinolaren egitura hidraulikoaren hondakinak azaldu ziren. Denboran zehar Igartzako jaunak burdinola berritzen eta berreraikitzen joan ziren, berau baitzen beraien diru sarrerarik garrantzitsuenetakoa. Zaharberritu behar den burdinola, 1782an Francisco de Ibero arkitekto ezagunak diseinatu, Igartzan eraiki zen azkena da. Berreraiki-

tze honetan eraikinak eta makineria erabat berritu ziren. Burdinola lanean aritu zen 1864an bertako maizterrek San Martin burdin fabrika, Gipuzkoako lehenengo egur ikatzezko labe garaia, martxan jarri zuten arte. Enpresa honetatik sortu zen ondoren CAF lantegia.

Goierriko materialekin egina

Duela 220 urte burdinola berria egiteko urte eta erdi behar izan zuten. Lan zuzendari bat, lau zurgin, lan maisu bat, burdinolako ofizial nagusi bat, eta haiei ze-



Felipe III.ak Igartzako burdinola, 1615eko azaroaren 2an, bisitatu zueneko grabatua.

gozkien hornitzaile, peoi eta laguntzaileak aritu ziren lanean. Eraikuntzarako material guztia Goierriko zenbait lekutatik eraman zuten: harria Legazpi eta Lazkaoko harrobietatik, teilak Ataun eta Lazkaoko teilerietatik, adaparoko zura Juan Antonio Apalategi ataundarrari agindu zitzaion eta Ignacio de Jaureguik garraiatu zuen gurgilak eta burdinolako gainontzeko lanak egiteko pagoa, Aralar eta Zaldibiako basoetatik.

Igartzako gunearen garrantzia

Lehenago ere garrantzitsuak ziren Igartza eta bertako burdinola. Horren adierazgarri dira 1565eko uztailaren 6an Felipe II.aren 3. emaztea zen Isabel de Valoisen bisita eta 1615eko azaroaren 2an Felipe III.ak


Igartzan burdinola ikusiaz egin zuen geldialdia.

Garai haietan eraikuntza kopuru nabarmena zegoen Igartzan. Erdi Aroko zubia- ren eskuin aldean dorretxea zegoen, zeinaren goiko alde, lehen solairura arte, 1456an hiribilduen ermandadeak suntsitu baitzuen eta, ondoren, zenbait aldaketa eginez berreraikia izan zen. Plaza txikiaren inguruan: errota, burdinola, olagizonaren etxea eta kanpoko sutegia zeuden. Zubia zeharkaturik, gurutzea zegoen eta aurrean Dolarea etxea, ostatua, zeinaren goiko alde, lehen solairura arte, 1456an eraitsi zuten eta gero adreiluz berreraiki; aurrerago, errementari eta ferratzaileen etxea eta ondolan zapatariarena zeuden. Horien guztien jabea jauregiko jauna zen.


► de Teknikoak zaharberritze lanak egiteko irizpideak zehaztu zituen. Batzorde hau Diputazioko ondare teknikariak, Jaurilaritzakoak, Udalekoak, Aranzadikoak eta Josetxo Zufiaurre iker-tzaileak osatzen dute.

Hormen sendotze eta burdinola estaltzeko lanen aurrekontua 251.000 eurokoa da eta sei hilabetetan burutuko da. Horma hauek handitzeko harri-horma eta harlanduzko era zaharreko teknika erabiliko da. Harriak Ibiurko urtegia egiteko Baliarrainen bota duten baserri batetik lortu dituzte Aranzadiko teknikariek. Teilaturako zeramikazko teila zaharrak erabiliko dira eta egurra ere, ahal den neurrian, zaharra erabiliko da. Proiektua Alberto Zulueta arkitektoak egin du, Maria Jose Torrecilla arkeologoaren laguntzarekin. Diputazioak burdinolaren berreskuratzea estrategikoki baloratu du eta Beasaingo udalarekin egindako hitzarmenaren bidez 155.000 euro jarriko ditu lanak aurrera eramateko.

2005 urte bukatzerako herritarrek ikusteko moduan jarri nahi da burdinola. Beasain bezalako herri industrialaren sustraiak non dauden gizarteari erakutsi nahi zaio. Ondoren burdinolari zein erabilpen eman, Igartzako monumentu multzoaren bideragarritasun plana egin ondoren erabakiko da. ■



Burdinolaren aldaparoa oso osorik dago, hau azpiegitura hidraulikoaren zatia da. Tailerra, erdiko gela, barlanduzko ateburuekin zutik dago, bertan bauspoaren, ingudearen eta mailuaren lekuak garbi ikus daitezke. Ikaztegiaren, gela bandiena, zati bat besterik ez dago zutik gaur egun eta gebiena berreraiki beharko da.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

Igartzako monumentu gunea berreskuratzen



2004ko lanen laburpena

Iaz egin ziren lanak egiteko 771.000 euro erabili ziren, hauetatik 269 Beasaingo Udalak jarri zituen, 226 Eusko Jaurlaritzak eta 276 Gipuzkoako Foru Aldundiak. Nagusiki, ondorengoak dira egindako lanak:

Zaharberritzeak

Harrizko ubidea.
Segura bideko zubi txikia.
Ermitaren teilatua.
Burdinolaren zaharberritzea.

Kaltegarriak ziren elementuen garbiketa

Ur zikinen azpiegiturak.
Indar lantegiko hormigoizko zoruak eta oinarriak.

Errotako garajea.

Dolareako bi etxebizitzak hustuketa.

Azpiegitura berriak

Ur zikinen azpiegitura berriak.

Ura, elektrizitatea, gasa eta telefonoen sare guztien batuketak.

Aldapororako ur horniketa berria.

Burdinola atzealdeko ibilbidea.

Berdeguneko oinezko bideak.

Ikerkuntza

Dolarearen inguruan Alberto Santanaren aholkularitza.

Burdinolaren inguruan Maria Jose Torrecillaren aholkularitza.

2003ko indusketa arkeologikoen amaiera.

Burdinolako ormen fotogrametria.

Dolareari buruzko agiri zaharren bilketa.

Dolareako dokumentazio planimetrikoa.

Inguruaren berreskuratzea

Lurra eta ongarriak ekartzea.

Belardien eta ibai bazterren berreskuratzeak.

Bertako arbola eta zuhaitzen landaketa.

2005. urterako lanik garrantzitsuenak.

2005eko lanik garrantzitsuenak burdinola estaltzea izango bada ere beste bi lan nagusi egitea aurreikusten da: alde batetik, Dolarea hustu ondoren eraikuntzaren azterketa sakona, ondoren zer egin erabakitzeko eta bestetik, Jauregiaren egituraren egoera aztertzea, premiazko ekintzarik egin behar den jakiteko.

Burdinola estaltzeaz gain, Dolarea eraikuntzaren azterketa sakona egin eta Jauregiaren egituraren egoera aztertuko da.

GOIKLINIK
osasun zentroa

Andrea Mari, 11 - 2. A

(Notaria zaharra)

BEASAIN

- Dietetika eta Nutrizioa Tel.: 636 21 82 40
- Psikologia eta Psikomotrizitatea Tel.: 656 76 10 40
- Pedagogia eta Logopedia Tel.: 616 24 15 26
- Podologia Tel.: 635 00 66 30

*"Ur azpian oso joko zikina
da water-poloa"*



‘Ñañarri’: Goierriko water-polo taldea

Gure artean hain ezaguna ez den water-polo kirolak badu Goierri bere ordezkaritza: Ñañarri water-poloa taldea. 16-27 urte bitarteko 21 bat goierritarrek osatzen dute taldea. Gehienak, aurretik

igeriketan ibilitakoak dira. Hutsetik hasi dira eta egunetik egunera ikasten ari dira Ñañarrikoak. Ilusioarekin eta gogoarekin hasi dute denboraldia. Mikel Arruabarrena taldekideak kontatu dizkigu taldearen eta water-poloaren gora-beherak.

Nolatan sortu da water-polo taldea?

Orain arte igeriketan ibili izan gara baina uzten joan gara. Eta geldi ez egotearren, beste zerbait egiten hasi gara. Water-poloan zerotik hasi ginen 2004ko otsailean lanean. Irailean entrenatzen hasi eta azaroan hasi genuen denboraldia.

Batere tradizioz ez duen kirola da water-poloa. Nolakoa izan da hasiera?

Idea sortu zitzaigunetik, kirol hau ezagutzen zuen jendearekin harremanetan jarri ginen, legazpiar batekin, Ketxus Zabaletarekin, eta bera dugu entrenatzailea. Legazpin waterpolo talde bat bazegoen eta han jokatutakoa da Ketxus. Beste jokalari bat ere etorri da gure taldera. Zerotik hasi zaizkigu erakusten. Dakiguna, haiek erakutsi digute.

Zein baldintzarako igerilekuak behar dira water-poloan jokatzeko?

Zabalera eta luzera zehatza behar du. Ofizialki, 30 metro luzeran eta 20 metro zabaleran behar ditu igerilekuak. Gipuzkoan, Donostian bakarrik dago horrelako igerileku bat, beraz, neurriak, egokitu egin dira. Luzeran 20 metro, eta zabaleran 15. Goierrin, Ordiziako igerilekuak bakarrik betetzen ditu baldintza horiek. Sakonera ere garrantzitsua da. Partiduak beraz, Ordizian jokatzen ditugu, eta entrenamentuak berriz, Lazkao eta Beasainen.

Zer moduzkoa izan da denboraldi hasiera?

Lau partidu jokatu ditugu, Gipuzkoako hirugarren mailan. Orain, urtarriletik aurrera Euskadi mailakoa jokatuko dugu. Lau partidutatik lauak galdu ditugu, alde handia dago eta. Baina oso gustura sentitu izan gara, oso esperientzia ona izan da. Partidutik partidura hobera egin dugu nabar-



Goierriko taldea

Beasain, Lazkao eta Ordiziako udalekin harremanetan jarri ziren lehenengotik. "Guk kirol hau praktikatzeko igerilekua behar dugu. Beasaingo igerilekuak ez du waterpoloan jokatzeko baldintzarik betetzen. Lazkaokoak ere ez. Ordiziakoak bai baina ez du entrenatzeko aukerarik ematen. Orduan pentsatu genuen, eskualde mailako talde bat sortu eta hiru igerilekuak erabiltzea. Batzuk entrenatzeko eta beste batzuk partiduak jokatzeko. Udaletzeko ordezkariak ondo iruditzen zaie eta gu izan gara bidea ireki dugunak". Ateak, adibidez, udalek erosi dizkiete, "guk ezingo baigenuke erosi. Milioi erdi pezeta kostatzen dira ateak".

men. Mentalizatuta geunden hasierako partiduetan emango ziguten egurrarekin.

Aurtengo denboraldirako zein helburu duzue?

Gustura aritu, ondo pasatu, kirola egin eta adiskidetasuna sendotzea. Kirol mailan, berriz, ikasi eta ahalik eta gorenena bukatzea eta hurrengo urterako gogoarekin jarraitzea eta oinarri on bat hartzea.

Teknikak garrantzia handia izango du kirol hone-tan.

Hankak dira garrantzitsuak. Hainbeste denboran zutik mantendu ahal izateko, hankei ondo eraginez, tente mantentzeko teknika bat dago. Asko kostatzen da ikastea baina oso garrantzitsua da.

Fisikoki kirol gogorra al da?

Fisikoki gogorra bada ere, ur azpian, zikina ere bada. Bizkarrean markakin ateratzen gara, odolarekin... ur azpian gertatzen dena ez da ikusten, baina hori ere, nola egin, ikasi egin behar da.

Askotan errugbiaren antz gehiago du water-poloak.

Zein ezaugarritako jokalariek behar dira?

Garrantzitsuenak jokatzeko gogoia edukitzea da. Oinarri bat eduki behar da, jakina. Igeriketan oinarria eduki behar da.

Jokatu nahiko lukeen norbait balego, zer egin beharko luke?

Beasain, Lazkao edo Ordiziako kiroldegietan galdetu eta lasai etorri.

Ikuslerik joaten al da partiduak ikustera?

Lehenengo partiduan harrituta gelditu ginen zenbat jende zegoen. Ordiziako

Partidutik partidura nabarmen hobetu dugu.

igerilekuko gradak beteta zeuden. Bigarren partiduan jende gutxiago etorri zen baina jende dezente zegoen. Kanpoko partiduetan ez da hainbeste jende egoten.

Ikusteko kirol polita al da?

Polita da, ezberdina. Mugitua da. Ur azpian gertatzen dena ez da ikusten eta ikusleentzat kirol polita da ikusteko.

Beasainen egiten ari diren kirol gune berriaren ondotik, igerilekurik izango al duzue entrenatzeko?

Ez dugu ezer pentsatu, baina nik suposatzen dut utziko digutela leku bat entrenatzeko. Udalak beti egon da gu laguntzeko prest dira eta gerora ere uste dut berdin jarraituko dutela eta ez dela arazorik egongo.

Taldearen izena Ñañarri duzue. Zer dela jarri duzue izen hori?

Izenarekin ere arazo batzuk izan genituen. Goierrri izena jarri nahi genion taldeari. Eusko Jaurlaritzara joan ginen eta izen hori ezin genuela jarri esan ziguten, Bizkaian badagoelako izen bereko herri bat, Urretxun ere txirrindularitzako talde bat badago. Hurrena Txindoki etortzen zitzaigun burura baina Ordiziako atletismo taldeak izen bera dauka. Eta batek, Ñañarri jarzea proposatu zuen, Txindokiren beste izena. Hala onartu ziguten.



Ur-kirola baloiarekin

Igerilekuan jokatzeko den kirola da water-poloa. Atezaina izaten da atea zaintzen, sei jokalarik lagun dituela. Arerioaren atean ahalik eta golik gehien sartzea da kirol honen helburua.

Futbolaren tankeran, faltak, penaltiak, kanporatzeak... egoten dira. Hori bai, baloia ezin da ur azpian erabili. Guztia epaiztzen, 2 epaile aritzen dira igerileku bazterrean.

Ordubeteko partidak

izaten dira eta aldaketak egin litezke. Zazpina jokalarik jokatzeko badute ere, beste sei izaten dira aldatu ketetarako prest.

Gipuzkoan bi talde berri

Gipuzkoan pixkanaka-pixkanaka talde gehiago sortzen ari dira ur-kirol honetan. Aurten Goierrri sortu den bezala, Lezo aldean ere berdin egin dute. "Haiek ere gure filosofia berdinarekin sortu dira. Federaziotik asko laguntzen

ari zaizkigu. Interesatzen zaie talde gehiago sortzea", adierazi du Mikel Arruabarrena Ñañarri water-polo taldeko kideak.

Babesa bai, baina dirulaguntza gehiegirik ez zaie oraindik iritsi. "Hasierako dirua geure poltsikotik jarri dugu, dirulaguntzak beranduago iritsiko baitira. Enpresaren batzuk hasi dira laguntzen eta ondo legoke babesleren bat aurkitzea", gaineratu du Arruabarrenak.

ZUZENKI

A H O L K U L A R I T Z A

Abokatuak

**Enpresen asesoria
eta gestioa**

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet .net

Elosegi, 16 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN





BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Esperientzia eskolan ere Gabonak ospatzen dira

Gabonetako oporrak zirela medio abenduaren 16an Esperientzia eskolako kideek eta GUESKE elkarteak (Esperientzia Eskolako ikasle ohien taldea) bazkari dotore bat izan zuten, giro ezin hobean, Lierniako jatetxean.

Ikastaroa 2004ko urriaren 19an hasi zen Goierriko lanbide Eskolan, Ordizian, ikasteko gogoia dutenentzat eta ondo pasatzeko aukera berri bezala, Goierri zein Urola Garaiko pertsonen zuzentzen zaie, eskatzen den bakarra 50 urtetik gora izatea, eta ez da inongo jakintza edo titulurik behar.

Oporren ondoren berriro ere gustura hartu dute ikastaroa. Azpimarratzekoa da ikasleen artean sortu den giro atsegina eta jatorra, irakasleek taldearen arteko partaidetza bultzatzen dute eta gainontzekoa sortu egiten da, azkeneko 3 promozioetan gertatu den bezala.

Pasa diren hilabete hauetan, beste batzuen arte-

an honako gaiak landu dira beti ere ikuspuntu orokorra kontuan izanik. Euskal herriko historia eta artea nola izan den belaunaldi ezberdinetan, momentu historiko garrantzitsuak, hala nola Frantziar Iraultza, lehenengo eta bigarren gerrate Karlista, hau guztia hobeto ulertzeko Zumalakarregi eta Igartubeitia museora bisita. Zuzenbidea, arauak non dute bere sorrera, nork egin zituzten, zer prozesu izan dute gaur egungo momentura iritsi arte, ze pauso eman dira egungo politikara iristeko Europan, Espainian, Euskal Herrian eta gure gertuko herrietan. Filosofia, ezagutza bat bezala, erreflexioaren bitartez (arrazonamendua erabiliz) gure inguruan pasatzen dena galdetzea eramaten gaituen, ideia nagusi honetatik abiatuz Filosofo garrantzitsuen erreflexioak ezagutzen dira eta hauek gizartearen eraldaketan izandako txokea ulertu.



Esperientzia Eskola ekainaren hasieran bukatuko da, bitarte horretan gai ugari dira jorratzekoak, hala nola laburpen bezala honako hauek aipatu ditzakegu: Zientzia, teknologia eta gizartea; zientzia eta teknologiaren eragina gizartean baita ere historian zehar eman diren momentuak nola izan duten erlazio zuzena zientzia eta teknologiaren sorreran. Literatura zer den, nola erabiltzen den komunikaziorako edo eta ze literatura genero dauden. Lasaitzeko teknikak, gorputza

eta fisiologiaren ezagupena, lasaitzeko aholku praktikoak, eta baita, eguneroko bizitzan ekonomiari buruz agertzen diren kontzeptuak ulertu e.a.

Gaiak oso aproposak dira, ez dago ez etxeko lanik ezta idatzi beharrik ere, arreta jarri eta gaiak gozatzeari da dena.

Parte hartu nahi baduzu edo eta Informazio gehiago izateko zabalazarik gabe deitu GOIEKira 943 161537 telefono zenbakian izango gaituztu.

Laida Plazaola

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Alpe

SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

Intipuka: telefono bidezko lotura

Beasaingo San Inazio kaleko 15. zenbakia, munduko txoko ezberdinetatik etorritakoen bilgune izaten da. Intipuka dago bertan. Etxekoekin hartueman izaten jarraitzeko, telefono zerbitzua eskaintzen du Intipukak, modu erosoago eta merkeago baten. Internet zerbitzua ere eskaintzen hastekotan dira, behin egoitza egokituta.

Josune Gil beasaingarra da Intipukako langileetarikoa bat. Donostian eta Bilbon ere baditu bulegoak Intipukak.

Telefonia, internet zerbitzua, paketeak eta diru bidalketa zerbitzuak eskaintzen ditu Intipukak.

Telefonia da gehien erabiltzen den zerbitzua. Bi aukera ezberdin eskaintzen ditu Intipukak: batetik, paso bidezkoa eta bestetik, telefono txartel bereziak.

Josune Gilek zehaztu dizkigu bi zerbitzuak: "telefono zerbitzuarekin patxadan eserita, bakoitza bere lokutorioan, dirua sartu beharrik gabe, lasai hitz egin liteke. Kontadorearen arabera ordaintzen dute. Prezioz ere hobeto ateratzen zaie eta ez daukate txanponak pilatzen aritu beharrik".

Telefono txartelak ere saltzen dituzte. "Kaleko telefono kabinetan erabil daitezkeen txartelak dira, herrialdeka eta minutuka saltzen dira. Etxetik ere erabil daitezke. Adibidez, Urte Zahar gauean, mugikorrarekin etxetik deitzeko aukera izan zuten". Herrialde gehienetarako txartelak saltzen dituzte, Kubakoak izan ezik.

Beasainen internet zerbitzua jartzekotan dira, lokala egokitu ondoren. Donostian eta Bilbon, kanpo-



Intipukan lanean ari den langileetarikoa bat da Miriam.

tarrek, txateatzeko erabiltzen dute batez ere.

Pakete bidaltzeak ere bideratzen dituzte. Pasa berri diren Gabonetan adibidez, hemen bizi diren kanpotarrek material asko bidali die jaioterrian bizi direnei. "Jantziak, barru arropak, jaboia... denetik bidaltzen dute. Askotan nahiago dute materiala bidaltzea, dirua bidaltzea baino. Idiazabal Gaztaren bat ere bidali izan dute, Kolonia aldera", dio beasaingarrak.

Diru bidaltze zerbitzua ere eskaintzen die Intipukak kanpotarrei. "Askok seme-alabak dituzte eta diru asko bidaltzen die", zehaztu du.

Igandeak jendetsuena

Kanpotarrei eskainitako zerbitzua da batez ere Inti-

pukak eskaintzen duena. Pasa berri diren eguberrietan zozketa bereziak egin dituzte eta saritzat, beraien sorlekurako bidaia izan da sarietarikoa bat.

Ordutegi zabala du Intipukak. Asteazken zehar, arratsaldeko 4etatik gaueko 11etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik gaueko 11etara. Igandeetan 11etatik ordu bietara eta lauetatik 11etara. Jende gehiena igandeetan pilatzen da. "Larunbat gauetan ere jende asko biltzen da eta aldameneko tabernak ondo aprobetxatu du. Dantzalekua jartzen baitu larunbat gauetan", dio Josune Gilek.

Bi erloju ikus litezke bulegoan: herrialde batetik bestera dagoen ordu aldeak kalkulatzeko bi erloju jarritako baitauzkate bulegoan.



URRAKI

OVER Taldea **BIDAIAK**



Zure bidai agentzia

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**

Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Debaldeko iragarkiak

ETXEBIZITZAK

salgai

Ataunen, etxea salgai. Berri-tua. Bizitzera sartzeko. 2 loge-la, egongela, sukaldea, bainuge-la eta garajea. 650399303.

Legazpin, pisua salgai. 3 loge-la, bainugela, egongela, sukal-dea eta trastalekua. Dena era-berritua. 678696120.

Idiazabalen etxebizitza sagai. 3 logela, 2 bainugela, sukalde ederra, egongela. Igogailua, leiho berriak eta berogailua. Bizitzeko sartzeko moduan. 943187234.

Lazkaon, erdigunean, etxebi-zitza salgai. Moblezatuta. 636333966.

Idiazabalen oso egoera one-an dagoen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, ganbara eta garajea. 645711093

errentan hartu

Etxebizitza errentan hartuko nuke. 606184829.

elkarbanatzeko

Madrilen ikasle pisua elkar-banatzen dugu. Mutil ez erre-tzaileak. 914595390.

GARAJEAK

errentan eman

Ordizia erdigunean garaje itxia alokatzen da. 665756560.

errentan hartu

Goierrin garajea edo lokala alokatuko luke. 617970088.

BESTELAKOAK

erosi

Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. 665703628.

Trialsin monty txirrindua erosiko nuke. 60 euro inguru. 606837355.

salgai

Kamioi arina salgai, bere txar-telekin. Bolketea ere badu. 943160754 - 651701690.

Sutarako egurra salgai. 2 metrora moztuta. 676882842.

Bi ur berogailu salgai. Neurri ezberdinetakoak. Oso gutxi erabiliak. 670422051.

Karabina salgai, 5,30 kalibre-duna. Norika marka. 943884207.

Bikotearen logela salgai. Ko-moda, ispilua, bi mahaitxo eta 1,50eko oheburua. Intxaur ma-zioa. 3 urte ditu. 646048047.

Elurretako kateak salgai. Spikes-Stider marmakoak. 943085206.

Egongelako altzaria salgai. 943085206.

17ko llantak salgai, Seat Leon FR-arenak. Merke. Aritz.. 652754858.

Monty trialsin bizikleta sal-gai. 6 hilabete. 5 aldiz erabilia. 200 euro. Ibon. 656727300.



% 100ean
diruz
lagunduak



Etengabeko formakuntza ikastaroak

Ekin-tza edo kur-tsoa	Orduak	Datak	Ordu-tegia
INFORMATIKA			
Otimatika, erabiltzaile maila	30	2005/01/31tik	18:30-19:30
Kalkulu horriak: Excel	25	2005/01/31tik	18:30-19:30
Datu basea: Acces	30	2005/01/31tik	18:30-19:30
INFORMATIKA TEKNIKOA			
Irudi tratamendua: Photoshop	30	05/02/28tik 05/03/23ra	19:30-21:30
ADMINISTRATZIOA			
Kontabilitate informatizatua: Contaplus	20	05/04/04tik 05/04/15era	19:30-21:30
Errenta aitortpena	20	05/03/05etik 05/04/09ra	09:00-13:00
Elkarteen zergak	20	05/04/16tik 05/05/14ra	09:00-13:00
HIZKUNTZAK			
Ingelesa: merkatal kudeaketa	70	05/02/23tik 05/06/29ra	19:30-21:30
Frantsesa: merkatal kudeaketa	70	05/02/14tik 05/06/29ra	18:15-19:30
NOBEDADEAK			
Ms. project	10	05/02/24tik 05/02/25era	08:30-13:30
ISO 9001:2000 prozesuak kudeaketa	15	05/02/14tik 05/02/18ra	08:30-11:30

Tel: 943 880346 Faxa: 943 161746

Nafarroa Etorbidea 1, BEASAIN

E-mail: dos@dosforma-

PSIKOLOGI KLINIKOA



AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkartokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**



ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..



kutxa

gizarte ekintza

IBILGAILUAK

salgai

Opel Vectra 1.600 salgai. 1997koa. 630384721.

Kawasaki GPZ 500S motorra salgai. 1990 urtekoa. Gutxi erabilia. Gurpil berriak. Ezin hobea motorrean ibiltzen has-teko. Kofrea eta ixil eskapeak. 2.000 euro. 651705011.

Renault 21 Quadra salgai. 4 x 4. Urdina. 3.000 euro. 686261210.

VW Golf GTI salgai. 115 zal-di. 92. urtekoa. Gorria. Egoera onean. Extrekin. 680240678.

VW Golf TDI salgai. 9 zal-di. Egoera onean. SS-AU. 696999130.

VW California 1.9 td salgai. Erabat hornitua. 130.000 km. 627418907.

Opel Corsa dti salgai. 5 ate-koa. 2001. urtekoa. 33.000 km. 620978809.

Opel Astra Sport dti salgai. 2001. urtekoa. 68.000 km. 653011355.

Citroen Saxo, salgai. 16 v. Gorria. Extra askorekin. 99. ur-tekoa. 653735111 - 615878600.

Opel Corsa salgai. Diesela. NA-AZ. 5 urte. Egoera onean. 677851566.

BMW 530 d salgai. 2001. ur-tekoa. 696268048. Jabi-Almu-dena.

Honda CR 250 motorra sal-gai. 1999. urtekoa. Egoera one-an, Extra eta errekanbio ugari-rekin. 2800 euro. 605755835.

Trialeko motorra salgai. Gas Gas JPX 270. 97. urtekoa. Ego-era oso onean. 1.650 euro. Harkaitz. 617768011.

ANIMALIAK

salgai

Arraza txikiko oiloak eta oilarra salgai. Gazteak eta politak. 943888068.

Zaldi hispano-arabea sal-gai. 5 urtekoa. Kapatua. Oso mantsoa. Hezi gabea. 1.000 euro. 656723131.

opari

Arratoi txakurra oparitzen da. 620343576.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Betaurreko graduatuak galdu nituen azaroaren 12an Txindoki inguruan. 943180423.

LG markako memoria stick grisa galdu da Beasai-nen. 630737181

LANA

eskaerak

Haur bat zaindu eta etxe-ko lanak egiteko pertsona bat behar da. 943028855. Arratsaldeetan deitu.

Asteburuetarako zerbi-tzari euskalduna behar da. Euskalduna eta esperientzia-duna bada hobe. 943880044.

Zerbitzariak eta sukalde laguntzaileak behar dira sa-gardotegirako. 607365743. Iluntzetan deitu.

eskaintzak

23 urteko neska euskalduna prest dago urtarritetik aurre-ra dendan lan egiteko. Aben-duan arratsaldez ere bai. Es-perientziaduna. 646848235.

Ordiziako emakumea, or-duka etxeko lanak egiteko prest dago. 943084046.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

HORTZ KLINIKA



CAMPAGNOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia, periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

2004-2005
IKASTURTEA

BERRIA!

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduluak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Talde txikiak

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
 - Ingelera
 - Word, acces, excel
 - mekanografia
- ✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA



Ordiziako neska rugbilaria 1988an

GOIERRITARRAREN 270. zenbakian, 1988. urteko Ordiziako neska rugbilarien 3 argazki argitaratu genituen. Hona hemen talde osoaren argazkia:

Zutik ezkerretik eskuinera: Nerea Martinez, Amparo Garcia, Leire Azkona, Iohana Blazquez eta Maider Imaz.

Pikotxean: Idoia Imaz, Nekane Altuna, Begoña Araiztegi, Miren Sukia, Ana De Arriba eta Amaia Balerdi

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
© 943 88 43 01

KARROZERIA

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxe:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA


Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

- garai berrietarako ideia berriak
- erabat berrituta dagoeneko zabalik

**ibai
ondo**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazkenean zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi *Sagardotegia Jateetxea*

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEB



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATEETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Zuretzako astia Tiempo para ti

www.antzizar.net

tel. 943 887900



publinter